

## EAEko IRAKASLEAK

### LEKUALDATZE-LEHIAKETA

Destinoen behin betiko esleipenak argitaratu ziren. Gorako helegitea aurkezteko, EHAA argitaratu eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean. Ebazpenak, [maisu-maistra kidegoa](#) eta [irakaskuntza ertaineko kidegoa](#).

### 2022-23 IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK (IKHA/COCU)

Karrerako funtzionarioak:

Ekainaren 7tik 10era, ofiziozko esleipenatarako Lurralde Historikoaren aldaketa eskatzeko epea. Eskaerak: [lurraldealdaketa@euskadi.eus](mailto:lurraldealdaketa@euskadi.eus)

Ordezko gaiak:

"Lehentasun eskubidea" ematen duen plazen tipologiari erreklamazioa aurkeztu zutenek, Hezigunean erantzuna ikusgai dute. Gorako helegitea aurkezteko epea, uztailaren 6ra arte.

Ekainaren 10etik 16ra arte, birbaremazio prozesuan "lan egiteko moduan" **egoeran EZ daudenak soilik**, "lanerako prest" jartzeko aukera izango dute.

**ADI!!!** Ikasturte hasierako egutegiaren eta Lehentasun eskubidearen inguruan, [STEILASen laburpena](#).

### **GOGORATU!!! OPORRALDIAREN ORDAINKETA.**

Ekainaren 30a baino lehen lan kontratua amaitu eta udako ordainketa dagokien langileei, izendapen berri bat egiten zaie uztailaren 1eko datarekin. Izendapen horrek Gizarte Segurantzaren alta eragiten duenez;

- Langabezia-prestazioa jasotzen ari direnak, prestazioaren ordainketa eten behar dute Gizarte Segurantzaren altan dagoen bitartean.
- Bajan dagoenak eta oporraldia ordaintzen hasten den egunean, Gizarte Segurantzaren alta ematea eragozten duen aldi baterako ezintasun-egoeran edo amatasun, harrera, adopzio edo aitatasun-egoeran dauden pertsonak, **uztailaren 1a baino lehen**, dagozkien egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan.

**Informazioa** [hezkuntzaren web orrian](#).

## IRAKASLEAK ETA HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

### 2022-23 BIRBAREMAZIOAK

Gorako helegiteak aurkeztu ondoren, ekainaren 10ean behin betiko zerrenda argitaratuko da.

**"LEHENTASUN ESKUBIDE" HONI EZ!!!**

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)